

36.eko egun gaitzak

Luis Maria MUJICA

-Benga, hurbil ezak gurutzea. Emaiok gertuagotik sua-alkateak zakarki agoazilari plazan.

Hantxe zetozen On Lukas erretorea eta On Romualdo koadjuto-rea lepoak sokatik tiraka zituztela; erretoreak sabela ozta-ozta mugitzen zuen. On Errufino botikarioa, Teofanes Puebla erregistradorea eta Eliseo Mellado kontea ere lotuta zekartzaten.

Milizianoek eskupetak altxatu zituzten, eta tiroak kanpandorre-rantz bota. Kanpan-mihia jo zuten apunteria zehatzez. Kanpaiak dangada negartia atera zuen. Ondoren, mila kiloko kanpai galanta plaza-ko zorura irauli zen, elizaren saihetseko hegala apurtuz.

Milizianoen su-leherketak suzirien zarataz nahastu ziren. Elizaren erretaulako goiko pisuan San Migel Goiaingerua, Aita Eternoa eta zurezko gurutze galanta zeuden; bigarrengoan Ama Birjinaren tailake-ta lerdena, oihal urrezkotan bildua, eta alboan San Pablo, espata zuela eskuan. Beherago, berriz, San Blas, San Jeronimo eta San Frantzisko, eta erdian sagrarioa. Milizianoek santu eta irudi guztiak tirokatu zi tuzten, San Frantzizko Asiskoa ezik, pobreen laguna zela-ko. Gero irudiak, soka luzeak lepotan trabatuta, lurrera bota zituzten, eta, eliz-alboetako aitortegi zaharrekin batera, plazara eraman sua pizteko.

Prozesioa, aitzinetik intzentsua hedatuz, Brijida sorginak, milizio-noek, alkateak, maisuak eta herri osoak egin zuten elizataritik plaza-raino. Brijida apaizaren sotana jantzita bilduak, zihoan latin traketsak, biraotan errezatzen. Hidalgo zeritzan miliziano-buruak San Blas apez-pikuari kenduriko urrezko esku-makila zeraman; bide-ertzeko jen-

deak heiagorak botatzen zizkion. Elizbira sasi- liturgikoaren ondoren, idi gurdian kanderailuak, zilarrezko kandelak, kopoiak, txanpon-erretilu urrezatuak eta beste edergailuak zekartzaten.

Gurutzea sutearen erdian kokatu zuten, eta On Romualdo eta beste apaiza lekuko zirela, su galanta zalu piztu.

Nafar Erriberako ortze urdin turkesaren gardentasunean sugarrak irmo aitxatzen hasi ziren. Miiizanoek Nafarroa klerikal, tradiziozalista eta kariistaren zantzu guztiak kiskail nahi zi tuzten, behingoz.

Mozkor batek *aitaren* egin zuen. Brijida sorginak gonak jaso zituen, eta aikateak korrokoa bota irreberrenteki. Sua San Pablo, Aita Eternoa, San Bias eta beste santuen bizarretan bizkor zaiu eta harro aitxa zen.

Sekretarioak kopatik edan zuen, eta maisuak kopia lizun batzuk kantatu.

Alkateak ondoren:

-Aquí se da el castigo, como Dios manda, a los caciques, a los curas y a los santos, que no nos ayudan. ¡No faltaba más!

-¡Eso es, eso es! - oihu ozena entzun zen sute ondoan, gerrako heiagora bezala.

Elizako erretaulan surtara jaurtiki gabe gelditu zen santu bakarra, bada, Asisko Frantzisko izan zen. Frantzisko Santuak, hala ere, arratsalde hartan aurpegi zipotza ukan bide zuen, azio haiekin haserre zegoelako.

Sutea hasita, jendeak harriduraz ikusi zuen fraide santua, erre-taulatik jaitsita, oinez zetorrela plazara. Alkateak Asisko Santuari:

-Mira, como nos provoques, también tú vas a la hoguera. Aquí no andamos con bromas.

Eta, ondoren, herriarengana zuzendurik:

-¿Qué os parece si también quemamos al frailecico?

Herriak ahots batez:

-¡Ese no, ése no!

Andereek San Frantziskoren besagaintara janzkiak bota zituzten, hotz aparta egiten baitzuen sutearen ondoan ezik.

Santu gehienak erre zituztenean, elizarekin zer egingen zuten galdeari ekin zion alkate sozialistak.

-¿Queréis que quememos la iglesia?

-¡No, no! -oihu gehienek.

Matias errementariak zehazki:

-Bajaremos de la hermita de la Alta Mejana a San Pantaleón, el santo que nos libró de la última pedrada. El será, con San Francisco, quiera o no, el que presida nuestro altar. En adelante la misa lo dirá el capellán del convento de Santa Eulalia, el cura pobre, que se acuerda de nosotros.

On Romualdo, On Lukas, Eliseo kontea eta Teofanes erregistradorea kanposantuko hormetara eramán zituzten milizianoek. Gizon batek (eta esatea barka bekit irakurleak) On Romualdori barrabilak ere moztu zizkion labanaz, eta handik zebilen eskale baten zakurrari jateko eman... On Lukasi, berriz, ahoan sartu zizkioten erauzitako barrabil odolduak. Ondoren tiro bana hustu zieten burumuinetara apaizei eta beste lagun lotuei miliziano basatiek.

Frantzisko Santuak elizara itzuli zenean, ez zuen nahi izan errautan leku apartekoan kokatu, ertz batean geratzea baino umil, kukuila marroiaz aurpegia, ia kokotseraino, estaltzen zuela. Lotsa bizia sentitzen zuen herri hain astoaren jarreraz. Herriak gaizki hartu zuen fraidearen muzina, eta, derrigorrez, aldare nagusiko erdigunean ipini zuen berriro santua ongi lotuta.

On Lukas eta On Romualdo apaizak hil zituztenetik, pulpitua hutsik gelditu zen, eta besteainbeste meza-aldarea, komentuko kapelaua herri hain madarikatuaren aitzinean meza ematera ukatu zelako.

Ondoren, alkatearen aginduz, bi gazte sendokoteek zilarrezko gurutzea Matias errementariaren sutegira eramán zuten, zilarra urtuta, haren balloa pobreen artean bana zedin.

Handik egun batzuetara Mola jeneralaren soldadu erreketek, Jesusen Bihotzaren dominaz jantzirik, Erriberako herrian, ustekabez,

sartuko zirenean kanposantuko hormak gorrien odolez zipriztinduko zituzten, eta belantxingek, putreek eta beste harrapariak eztaiak egingen, Nafarroako herri heterodoxoan, mendi aldeko herriean baino sarraski gehiago aurkitu zutelako.¹

(1) Ipuin hau, LA MEJANAKOAK izenburupean, garapen handiagoz emana izan da beste argitarapen batean.